

IRAGARKIA

ITURRIBARRI 14AN DAUDEN BI TRASTELEKUREN ESLEIPENDUNAK HAUTATZEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUTEN OINARRIAK

1.- **Eskaintza publikoaren** bidez esleitu beharreko ondasunen ezaugarri zehatzak eta prezioak:

LOTE ZK.	ELEMENTUA	HELBIDEA	ATA RIA	SOLAIRUA	ATEA	AZALERA ERAB. (m ²)	PREZIOA (zergak ez daude barne)
1	Trastelekua	Iturribarri Kalea	14	Sotoa	A	6,96	3.480,00
2	Trastelekua	Iturribarri Kalea	14	Sotoa	B	5,95	2.975,00

2.- **Trastelekuen erregimena:** Trastelekuak ez dute inolako babes erregimena edukiko, beraz libreak izango dira.

3.- **Agiriak eskuratu nahi izanez gero:** erregistro-datuak udaletxeko Erregistro Orokorrean emango dira (beheko solairua. Musika plaza z/g. Ondarroa. Telefonoa: 94.683.36.72 E-mail: orokorra@ondarroa.eus).

4.- **Eskabideak aurkezteko epea eta tokia:** 2018ko otsailaren 23 arte, Ondarroako Udaleko Erregistro Orokorrean. Aurkeztu ahal izango dira eskabideak trasteleku bat bakarrik eskatzeko, eta beti ere, eskabide bat pertsona bakoitzeko.

5.- **Trastelekuen eskatzaileek aurkeztu beharreko agiriak:** eredu ofizialean agertzen den eskabidea behar bezala beteta. Bertan adierazitako datu guztiak egiazkoak izango dira. Eskabideari erantsi beharrekoak:

ENAREN fotokopia, eskatzailearena berarena.

6.- **Eskatzaileen zerrenda:** Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, zerrenda bat egingo da eskatzaileekin. Zerrenda hori udaletxeko iragarki-taulan eta ediktu taula elektronikoan (www.ondarroa.eu) jarriko dira ikusgai. Udaletxeko iragarki-taula hauetan argitaratzean, ez da banan-banako jakinarazpenik egingo, Administrazioen Publikoen administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 42 eta 43 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.

7.- **Zozketa:** udaletxeko iragarki-taulan ikusgai jarritako iragarkiaren bidez zehaztutako egunean, orduan eta lekuan, udal idazkariaren aurrean dela zozketa egingo da zerrendan agertzen diren eskatzaileen artean. honako modu honetan:

1. Pertsona bakoitzeko bola bat jarriko da eta zerrendan eskatzaile bakoitzari esleitutako zenbakia edukiko du bola hori.
2. Bolak banaka aterako dira lehentasun-ordena osatuz. Ordena hori jarraituko da norberari gehien interesatzen zaiona aukeratzeko.
3. Ondoren, dagokion akta idatziko da. Bertan, trastelekua erosteko lehentasun-ordena adieraziko da.

8.- Aukeratuko pertsonen zerrenda eta itxaron-zerrenda: Alkateak onartuko du trastelekuak erosi ahal izateko lehentasun-ordena ezartzen duen zerrenda. Erabaki horri banan-banan jakinaraziko da aukeratuen eskabideetan adierazitako helbideetan. Ondoren, jakinarazpena egiten denetik hasi eta jarriko den epean, aukeratuek euren adostasun idatzia eman beharko dute. Hala egiten ez badu, esleipendun izateari uko egiten diola ulertuko da, kasu horretan zerrendako hurrengoari eskainiko zaio.

Era berean, aukeratuen zerrenda hori eta itxaron-zerrenda argitaratuko dira udaletxeko iragarki-taulan.

9.- Salerosketa-kontratuen gauzatzea: Alkatetzaren aurreko erabakia Ondarroa Lantzen, S.A. udal-sozietateari ere jakinaraziko zaio, salerosketa-eskriturak egiteko. Eskrituraren gastuak, zergak eta Erregistroko gastuak eroslearen kontura izango dira.

Ondarroan, 2018ko urtarrilaren 25ean
Ondarroa Lantzen SA presidentea
Zunbeltz Bedialauneta.

